
EEELeko urteko idatz-oharra egiteko Batuz gida

Urtarrilean, egin idatz-ohar bakarra urtean 1.000 €-ko muga gainditzen duen hornitzaile bakoitzeko. Guztizkoa kalkulatzeko, salbuespenari dagozkion ikasleen prestakuntzako BEZik gabeko fakturak bakarrik hartu kontuan.

1. Sartu EEELean


Sartu Batuzeko Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuan (EEEL). https://www.batuz.eus/eu/eeel

«Aplikaziora sartzea» atalean, egin klik esteka honetan. **«Pertsona juridikoen eta ez-egoiliarren establezimendu iraunkorren EEEL (240 eredua)»**




2. Identifikatu Izenpen

Izenpeko pantailan, hautatu **«Ziurtagiri digitalak»** eta identifikatu zaitezte.




3. Egiaztatu harremanetarako datuak

Daturen bat zuzena ez bada, sakatu **«Datuak aldatu»**. Datu guztiak zuzen badaude, sakatu **«Jarraitu»**.



4. Ireki irabazi-asmorik gabeko erakundeen atala


Kapituluen zerrendan, hautatu **«Zerga garrantzia duen bestelako informazioa»**.



Hautatu **«Irabazi-asmorik gabeko erakundeen eragiketak»** fitxa.




Sakatu **«+ Gehitu irabazi-asmorik gabeko erakundearen eragiketa berria»**.



5. Bete eta gorde idatz-oharra

Hautatu **«Erosketak: ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea»**. Idatzi hornitzailearen IFZ, izena edo sozietatearen izena eta zenbateko osoa. Sakatu **«Gorde»**.



Gorde ondoren

Muga gainditzen duen beste hornitzailerik baduzue, sakatu **«Gehitu irabazi-asmorik gabeko erakundearen eragiketa berria»** eta errepikatu aurreko urratsa.

Amaitu baduzue, sakatu **«Itzuli irabazi-asmorik gabeko erakundeen eragiketen zerrendara»**.

